



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

I. SARRERA	5
II. TESTUINGURUAN KOKATZEA. ABIAPUNTUKO EGOERA	7
1. ADINEKOAK BIZKAIAN	11
Profil soziodemografikoa	11
Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak Adinekoei ematen dien arreta	15
III. ZAHARTZEA, ERREALITATE BERRIA	25
2. XEDEA ETA IKUSPEGIA	27
3. BALIOAK ETA PRINTZIPIOAK	29
4. ESPARRU ESTRATEGIKOA	31
IV. BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE EKINTZA SAILAREN ZEREGINA	33
5. GIZARTE EKINTZA SAILAREN ESTRATEGIA ADINEKOEI BURUZ	35
6. AGERRALDI ESTRATEGIKOA: ARDATZ ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK	39
Ardatz estrategikoak	39
Estrategia helburu estrategikoetan agerraraztea	41
V. ERANSKIN METODOLOGIKOA	49
7. PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEKO METODOLOGIA - ALDERATZE-SAIOAK	51
8. BIBLIOGRAFIA	53



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

I. SARRERA

Azken hamarkadetan Bizkaiko gizartean aldaketa esanguratsu batzuk gertatu dira bizi-itxaropenaren luzapenaren ondorioz, eta bereziki, biztanleen bizitza osasuntsuarekin lotuta, ekonomia, gizarte eta osasun arloetan izandako aurrerapausoak direla-eta. Aurrerapen horiek, berez, Lurraldearen garapenaren adierazle ona dira, eta errealitate berria planteatzen dute, mendekotasun egoeren arreta handiagoa behar izango baita, autonomia nahiz herritartasun aktibo eta osasuntsua sustatzeaz gain.

Bizi-itxaropena etengabe luzatzen ari denez, biztanleria osoa zahartzen ari da. Fenomeno hori orainaldiko kontua da, eta etorkizunean ere protagonista izango da, aurreikuspen guztiek eskualdean zein Europan adierazten dutenez. Piramide demografikoa eta familia-, antolakuntza eta erakunde-egiturak aldatzen ari dira gizartearen esparru guztietan, eta horrek ondorio sakonak dauzka bizitza eta politika publikoen arlo guztietan.

Gauzak horrela, helburua errealitate horri ahalik eta ondoen egokitzea izan behar da. Ahal den neurrian aurrea hartu beharko zaio, eta adinekoen zahartzea modu aktibo eta osasungarrian gara dadila sustatuko duen ingurunea sortu beharko da. Horren guztiaren abiapuntua zahartzearen kontzeptu hau da: "prozesu dinamiko, etengabe eta konplexua, bizitza osoan garatzen dena, ez egoera baten moduan!".

Beharrian horri erantzuteko asmoz, Bizkaiko Lurralde Historikoak konpromisoa hartu du, Lurraldean zahartze aktibo eta osasungarria ahalbidetu eta sustatuko duten baldintzak bermatzeko, agiri honetan planteatzen den Lurralde-estrategia orokorra diseinatuz.

Bizkaiko Adinekoekin eta Adinekoentzat definitutako estrategia da². Estrategia horretan, Bizkaiko Adinekoen eremuan garatu beharreko estrategia nagusiak zehazten dira, dauden baliabideen optimizazioa premisa dela, eta diziplina anitzeko ikuspegi integratzaile eta koordinatu batetik. Bizkaiko Adinekoen Plan Estrategiko hau Bizkaiko Adinekoen Kontseiluak onetsi zuen 2013ko abenduaren 18an.

1. Zahartze termino hori ontzat hartu du Bizkaiko Foru Aldundiak: "Bizkaia zahartze aktiboaren alde" adierazpena (2007ko apirila).
2. "Adinekoak" 60 urtetik gorako adina duten pertsonak dira, Osasunaren Mundu Erakundearen gidalerroei jarraituz.



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

Jarraian aurkeztuko den agiriak egitura hau dauka:

- *Testuinguruan kokatzea*; Bizkaiko Adinekoen egoerari buruzko hurbilketa, beren profil soziodemografikoaren ezaugarriak ezarriz eta adinekoen arretarako garatutako ekimen nagusiak azalduz.
- *Zahartzea, errealitate berria*: Bizkaia Adinekoen arloan izango dituen eginbeharra eta ikuspegia eta Lurraldeak eremu horretan izango duen jarduera gidatzeko erabili beharreko esparru estrategikoa definitzea.
- *Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren zeregina*: Sailaren konpromisoa adineko esparruan garatu beharreko ardatz eta helburu estrategikoei dagokienez, adinekoen arretarako erantzukizun publikoa duen erakunde-eragile gisa, bere eskumenen esparrutik abiatuta.
- *Eranskin metodologikoak*: Plana lantzeko jarraitutako metodologiaren xehetasuna, bereziki Adinekoen partaidetzari dagokionez, eta plana egiteko erabilitako bibliografia.

Bizkaiko Adinekoen Plana,
zahartzen ari den Bizkaia erantzuna emateko estrategia bat.



**II. TESTUINGURUAN
KOKATZEA.
ABIAPUNTUKO EGOERA**



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

II. TESTUINGURUAN KOKATZEA. ABIAPUNTUKO EGOERA

Adinekoei buruzko gogoeta estrategikoaren gaur egungo testuinguruan, gaur egun Europan gertatzen ari diren joera eta aldaketa sozialak nabarmentzen dira. Joera eta aldaketa horiek Bizkaiko gizartean ere dute eragina, eta abiapuntu gisa hartu behar dira etorkizunean jarduera-esparruak ezartzeko.

Abiapuntuko egoera aldarazten duten joera eta aldaketa sozial esanguratsuak

- **Biztanleria zahartzea**, batik bat jaiotza-tasaren beherakadarengatik eta osasun arloko aurrerapenen ondorioz bizi-itxaropena luzatzeagatik; Adinekoen bolumen handiagoa, Lurraldeko biztanleria osoarekin alderatuta.
- **Adinekoen gaitasun eta ezagutza handiagoak**; gizarte- eta kultura-kapital handiagoa.
- **Mendekotasun-egoerak ugaritzea**, funtsean adin handieneko biztanleei dagokienez (80 urtetik gora).
- **Desgaitasunaren prebalentzia** mantentzea eta desgaitasunak dauzkaten helduen kopuruaren gorakada (desgaitasunak dituzten pertsonen eta beren senideen zahartzea).
- **Familian gertatzen diren aldaketek** (familia-egitura berriak, familia nuklearraren tamaina txikitzea, bikote-harremanen eta seme-alabekiko harremanen aldaketak, familia-ereduen aniztasuna, etab.) familiak berak tradizioan bete dituen hainbat zeregin betetzeko ahalmena murrizten dute, adibidez mendekotasun egoeran dauden kideak zaintzeko zeregina.
- **Gizarte-laguntza informalararen intentsitatea ahultzea eta zaintza informalararen eredia apurkako aldatzea**, bai seme-alabei bai gurasoei dagokienez (intentsitate txikiagoa zaintzan eta laguntzen beharrezanean, gizon batzuk astiro hastea zaintza-lanetan, aitita-amamen zeregina, zaintzaileen zahartzea, etab.).



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

- **Adinekoek** gizartearen sostenguan **ematen duten laguntza, familiari lagunduz, bilobak eta mendeko pertsonak zainduz**, edo boluntariotzaren edo herri-tarren partaidetzaren bidez.
- **Adinekoek etxean geratu nahi izatea** edo bestela, "etxean" bezala egon ahal diren egoitza-ingurune batean.
- **Zaugarritasuna areagotzea** adinagatik, sexuarengatik, etniarengatik, jatorriarengatik eta/edo autonomia mailarengatik eta diskriminazio anitzaren egoerengatik.
- Bizikidetzaren eremuan edo etxean egon daitezkeen **indarkeria edo tratu txarren egoerak** (gurasoei, adinekoei...) artatzeko beharrezana.
- **Lan egiteko eta euren bizi-proiektua gauzatzera migratzen duten eta Lurraldera etortzen diren pertsonen** kopuruaren gorakada (murriztu egin da adingabeen kopurua, baina oraindik ere helduak heltzen dira, gehienetan beste autonomia erkidego batzuetatik, neurri batean krisiaren ondorioz, eta autonomia erkidego batzuetan eta besteetako biztanle etorkinen tasak birdoitzeagatik).
- **Gaixotasun kronikoak** dauzkaten pertsonen **gizarte-laguntzaren** eskariaren gorakada.
- Adinekoen belaunaldi berrien gaitasuna, **gizarte-eragileak izateko eta gainerako eragileekin lankidetzan aritzeko**, gizarte aktiboago eta solidarioagoa eraikitze aldera.



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

1. ADINEKOAK BIZKAIAN

PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA


BIZKAIA ZAHARTZEN ARI DA

Bizkaiko Lurralde Historikoak 2011. urtean 1.153.351 biztanle zeuzkan. 80ko hamarkadatik aurrera biztanleriak etengabe behera egin du. 2001. urtean gorakada txiki bat egon zen, eta azken 10 urteetan Lurraldeak 1991. urtean zuenaren antzeko kopuruetara heldu da.


Gaur egungo osaera demografikoa eta etorkizun hurbilerako aurreikusten dena, azken urteotako fenomeno en emaitza dira:

- Jaiotza-tasaren beherakada. "Baby boom-aren belaunaldian" gorakada bat egon zen, baina gaur egun Bizkaian behera jo du: Eustaten 2011ko datuek diotenez, 9,2 jaiotza daude 1.000 biztanleko, Europako batez besteko kopurutik behera (10,6 jaiotza 1.000 biztanleko).
- Bizi-itxaropenaren gorakada nabarmena azken hamarkadetan, batik bat heriotza-tasaren beherakadarengatik, Euskadin ongizatearen eta aurrerabide zientifiko-medikoaren arloetan dauden koten ondorioz. Azken hiru hamarkadetan, bizi-itxaropenak gutxi gorabehera %10 egin du gora (7 urte gehiago ditu bizi-itxaropenak).
- Biztanle etorkinen egitekoa. Biztanle horiek azken urteotan ekarpen garrantzitsua izan dute, baina murriztu egin da atzeraldi ekonomikoarengatik eta lanerako aukeren faltarengatik.

BIZKAIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA, 1981-2011.
(ITURRIA: EUSTAT)



BIZI ITXAROPENA JAIOTZEAN
(BIZKAIA 2010)







BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

Biztanleriaren zahartzea faktore horien ondorioa da. Horren emaitza da 65 urtetik gorako biztanleen garrantzia gero eta handiagoa dela³. Hain zuzen ere, 2011n **Bizkaiko biztanleen % 20 baino gehiago 65 urtetik gorakoak ziren.**

Emakumeen kasuan **garrantzi handiagokoa** izanik (Bizkaiko emakumeen % 23k 65 urte edo gehiago dauzkate, eta gizonen % 17k), **Bizkaian 2011n 65 urtetik gorako 234.497 biztanle zeuden.**



Banaketa geografikoari dagokionez, eskualdeen arabera azterketak **zonaz zona antzeko banaketa** agerrarazten du; biztanleria osoarekin alderatuta, adinekoen tasak % 17 eta % 23 artekoak dira.



Datozen urteetan, egoera hori areagotu egingo da; izan ere, Eustatek egindako biztanleria-proiekzioek diotenez⁴, **Bizkaian 65 urte edo gehiago dauzkaten biztanleen tasak gora egingo du % 22,6ra arte 2020an, eta % 37,4ra arte 2050ean⁵.**

3. Estatistiken ondorioetarako, Adinekoak kontuan hartzeko 65 urtetik gorako pertsonen buruzko datuak (adin-tarteen arabera erabilgarria den banakapen bakarra) erabiltzen dira, 60 urtetik gorako pertsonen taldearen ezaugarrien aipamena egiteko.


4. Eustat, Euskal Estatistika Erakundea (Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoa).

5. Eustaten Bizkaia-erantz 2050erako egin dituen proiektzioak erreferentzia gisa hartuta, 3. eszenatokia oinarrituta. Proiekzio horren arabera, 2050ean emakume bakoitzak 1,07 seme-alaba izango ditu. Bizi-itxaropena 89,6 urtekoa izango da gizonentzat eta 92,8 urtekoa emakumeentzat, eta epealdi osoan migrazio-saldoa positiboa izango da.




BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

65 URTEK GORAKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA 2011N, BIZKAIKO AZPIESKUALDEEN ARABERA.
(ITURRIA: EUSTAT)




Biztanleriaren proiektzioek agerazten dutenez, biztanleria zahartzea ez da gaur egungo erronka soilik; etorkizuneko erronka ere da, gero eta zahartuago dagoen gizarte bat ezaugarri duela; izan ere, Bizkaian 2050ean lau pertsonatik ia lau adinekoak izango dira.

65 URTEK GORAKO BIZTANLERIAREN PROIEKZIOA
BIZKAIAN (ITURRIA: EUSTAT)



Halaber, biztanleriaren proiektzioetan, ikusten da **nabarmen egingo dutela gora** adinik handieneko taldeek, bereziki 90 urtetik gorako pertsonak; haien proportzioa bikoiztu egingo da, 2050. urterako proiektzioek diotenez.

65 URTEK GORAKO BIZTANLERIAREN EGITURA. BIZKAIKO
PROIEKZIOAK. (ITURRIA: EUSTAT)





BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

BIZKAIA, ZAHARTZEN JARRAITUKO DUEN LURRALDEA...

Bizkaia 2011




+65

234.497 pertsona
Biztanleriaren %20



90-≥100 urte
% 4



Bizkaia 2025




+65

281.088 pertsona
Biztanleriaren %26



90-≥100 urte
% 7



Bizkaia 2050




+65

389.617 pertsona
Biztanleriaren %37



90-≥100 urte
% 11





BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE EKINTZA SAILAK ADINEKOEI EMATEN DIEN ARRETA

Funtsean gizarte zerbitzuek adinekoei ematen dieten arretaren joera historikoaren ildo beretik, Foru Aldundiek zeregin garrantzitsua daukate esparru horretan, 27/1983 Legearen ondorioz⁶. Lege horretan beren lurraldean esleitzen zaie besteak beste Erkidegoaren Garapenean legeria betearazteko ahalmena.

Arau-esparru horren barruan, Bizkaiko Foru Aldundiak bere sailen barneko antolakuntzan⁷ **Gizarte Ekintza Sailaren** egitura biltzen du, Administrazioaren eta Plangintzaren, Pertsonek Autonomiaren Sustapenaren eta Mendetasunari Arreta Eskaintzearen, Gizarteratzearen eta Berdintasunaren jardura-eremuetan **Bizkaiko adinekoen arreta agertzen da**.

Hala, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren egitekoa da **bere egoera pertsonalagatik, sozialagatik eta familia-egoeragatik, bizitza normala, duina eta osoa garatzeko arazoak dituzten herritarrei zerbitzuak ematea**, mendetasuna duten pertsonei, babesgabezia egoeran dauden edo tratu txarrak jasan dituzten emakumei eta adingabekoei eta gizartean baztertuta dauden edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonei. Horretarako, giza garapen iraunkorra sustatzen du, eta, beraz, genero politikak eta lankidetzak eta garapen politikak diseinatzen ditu.

Pertsona horien **bizi-kalitatea hobetzeko, ongizatea bermatzeko eta gizarteratzeko**, pertsona horien ezberdintasunarekiko errespetua gordez, Gizarte Ekintza Sailak laguntza ematen du gizarte-egoerarik ahulenean dauden pertsonek familiaren barruan eta gizarte-ingurunean; horrelako pertsonak dira **Sailak** artatzen dituen adinekoak, **bere bigarren mailako zerbitzuak emanez edo indarreko legediaren esparruaren barruan, eta bere eskumenak betez**.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN IBILBIDE LUZEA ADINEKOENTZAKO ZERBITZUGINTZAN, IKUSPEGI BERRITZAILE BATETIK ETA BEHARRIZANEI AURREA HARTZEKO.

Inguruabar horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak azken urteotan jardura eta proposamen ugari egin ditu **Bizkaiko adinekoen bizi-baldintzak eta bizi-kalitatea hobetzeko**. Jardura eta proposamen horiek sailaren plan estrategikoetan bildu dira, eta bereziki azken urteotan, Bizkaiko 2006-2011 Plan Gerontologikoan eta Bizkaian Zahartze Aktiboa sustatzeko 2010-2011 aldiko ekintza planean.

Egoitza-baliabideei dagokienez, oso hazkunde nabarmena gertatu da Lurraldean egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan erabilgarri dauden plazen bolumenari dagokienez.

6. Autonomi Elkarteko Erakunde Erkideen eta Elkarteko Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzko 27/1983 Legea.

7. Ahaldu Nagusiaren ekainaren 29ko 138/2011 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak zehazten dituena.



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

Gaur egun, **baliabide-sare zabal eta aurreratua** dago, eta epe laburrean sare horrekin bat egingo dute foru titulartasuneko beste bi egoitzak eta Adinekoen autonomia sustatzeko beste zentro batek.

Programei eta jarduketa-ildoei dagokienez, azken urteotan Gizarte Ekintza Sailak programa berritzaileak bultzatu ditu, funtsean mendetasuna duten pertsonen zaintzaileei laguntza eta atsedena emateko;

- Familiar menpekotasunari laguntzeko Zainduz egitaraua, autonomia pertsona sustatzeko jarduerekin, prebentzio jarduerekin, boluntariotza jarduerekin eta mendetasuna duten pertsonak zaintzen dituztenei laguntza psikosoziala eskainiz.
- Familia atsedeneko zerbitzuak eguneko arretako zentroetan.
- Mendetasuna duten pertsonak beren etxeetan zaintzen dituzten pertsonentzako atsedeen-programak abian jartzea, formula berritzaileen bidez, adibidez teknologia berriak eta boluntarioaren figura erabiliz.

Halaber, orokorrean, Bizkaiko Foru Aldundiak badaki modu aktiboan, inplikaturik eta gizartearen errealitateari lotuta zahartuz gero aukera dagoela pertsonen ongizate fisiko, sozial eta intelektuala bizitza osoan hobetzeko. Hortik abiatuta, **zahartze aktiboa sustatzeko ibilbide nabarmena** egin du, Bizkaiko Adinekoen Kontseiluaren eskutik.

2006: Bizkaiko 2006-2011 Plan Gerontologikoa

2007: Zahartze aktiboaren aldeko Bizkaia Adierazpena

2008: Bizkaiko Foru Aldundiaren adierazpen publikoa adinekoen alde, "Adinekoen nazioarteko eguna"

2009: Bizkaiko Adinekoen Behatokia sortu eta arautzea

2010: "Bizkaian Zahartze Aktiboa sustatzeko 2010-2012 aldiko ekintza plana" onestea

2011: Bizkaiko Adinekoen Kontseiluaren egitura berria arautzen duen dekretua onestea
Dekalogoak: Adinekoak eta hedabideak Bizkaian.

2012: Zahartze aktiboari buruzko politikak sustatu beharri buruzko adierazpena, Europako Parlamentuari bidalia.

Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza Zahartze Aktibo eta Osasuntsuaren Europako partenariatuan. (*European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing*).

2013: "Euskadi – Basque Country" "*Reference Site of the European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing*" gisa aintzat hartzea, Kronikotasun estrategiak, Etxean Ondo eta Zahartzearen aldeko Inguruneak garatzeagatik. Horretan Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak parte hartzen dute.



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

GIZARTE EKINTZA SAILAK ADINEKOEN ARRETAN BIZKAIAN EMATEN DITUEN ZERBITZU ETA PRESTAZIOAK

Gaur egun, Bizkaian 60 urtetik gorako 300.000 biztanle baino gehiago daude. Haiei, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak zerbitzu eta prestazio ugari eskaintzen dizkie, beren autonomia pertsonala sustatzeko, eta bidezkoa bada, mendetasun-egoerak artatzeko. Jarraian, gaur egun dauden zerbitzu eta prestazio nagusiak aurkeztuko dira:

BALORAZIO ETA ORIENTAZIO ZERBITZUA


Autonomia pertsonala sustatzeari eta inoren laguntza-beharra duten pertsoneri laguntzeko Legea indarrean jartzearen ondorioz Inoren laguntza-beharra izatea aitortzeko prozedura arautzen duen apirilaren 24ko 74/2007 Foru Dekretua onetsi zenetik, **Gizarte Ekintzak mendetasuna aitortzeko eskabideak kudeatzen ditu. Mendetasun-egoera onartzea lehenengo urratsa da mendetasuna artatzeko zerbitzu eta prestazioak jasotzeko eskubide subjektiboa onartzeko eta zerbitzu eta prestazio horiek modu unibertsalean jasotzeko.**

2012an, medikuntzako profesionalak, psikologoek eta gizarte langileek osatzen dituzten Bizkaiko balorazio-taldeek **guztira 11.211 pertsona** baloratu zituzten, haiek eskatuta (kasuen % 64 emakumeak ziren, eta kasuen % 60 65 urtetik gorakoak).

Halaber, mendetasun-egoera onartzeko prozeduraren barruan, 2012an guztira **arreta eskaintzeko 9.169 programa** egin ziren, eskatzailearen bizi-kalitatea mantentzeko eta hobetzeko egokienak diren esku-hartzeak zehaztuta.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta inoren laguntza-beharra duten pertsoneri laguntzeko Legea onetsi zenetik, 2007-2012 epealdian, **Gizarte Ekintza Sailak Bizkaian 70.000 pertsona baino gehiago baloratu ditu.**

MENDEKATASUN MALAREN BALORAZIOA (2007-2012 ALDIAN EGINDAKO BALORAZIOAK)






BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

BESTEREN LAGUNTZA BEHAR DUTEN ADINEKOEN EGOITZEN FORU ZERBITZU PUBLIKOA

Bizkaian adinekoentzako zentroyen eta egoitzetako plazen bolumenak gora egin du eten-gabe azken urteotan (plazen kopuruak % 22 egin du gora azken 6 urteetan); horren ondorioz, gaur egun Lurraldean adinekoentzako egoitza-zentro publiko zein pribatuen estaldura eta erabilgarritasun handia dago, guztira 148 zentro, 10.130 plazarekin⁸.

Egoitza-zentroyen azpiegituren garapenari esker, 2012an Bizkaian egoitza-plazen estaldura, 60 urtetik gorako biztanleriaren gainean, % 4,29koa da. Bizkaiko estalduran, azpieskualdeen arabera, Mungialde-Txorierriren eta Arratiaren kasuak erakusten dira estaldura-tasarik handienarekin; Durangaldean eta Basauri-Etxebarri-Galdakaon, aldiz, egoitzetako plazen estaldura txikiagoa da. Nolanahi ere, azpieskualde guztietan estaldura % 2,7tik gorakoa da.




8. 2012ko abenduaren 31ko datuak. Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila.



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA


Egoitza-plazen kopurua handitzeaz gain, azken urteotan **aldatu egin da plazen banaketa, titulartasunaren arabera**. 2006an, plaza pribatuen garrantzia handiagoa zen osotasunarekin alderatuta. **2012ko** egoeran, aldiz, **foru erakundearen ardura publikoko plazen eta plaza pribatuen banaketa** orekatu da, eta erabilgarri dauden baliabide ia guztiak dira. Horiei, udalen plazak gehitu behar zaizkie, osotasunarekin alderatuta % 4 direla.

EGOITZETAKO PLAZEN KOPURUAREN BILAKAERA BIZKAIAN (2006-2012)



EGOITZA-PLAZEN BANAKETA, TITULARTASUNAREN ARABERA (2006-2012)

Egoitza-plazen banaketak, titulartasunaren arabera, agerrarazi egiten du **Bizkaiko Foru Aldundiak azpiegiturak garatuz eta plazak hitzartuz adinekoentzako egoitza-baliabideetan egindako ahalegina**. Izan ere, foru ardurapeko egoitza-plazen bolumena eskaintza pribatuaren parekoa da.






BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA


Gaur egun⁹, 60 urtetik gorako adinekoentzako egoitza-zentroen foru sareak (foru titulartasuneko zentroak, beste administrazio publiko batzuekin hitzartutako zentroak eta irabazteko asmoa duten erakundeekin zein irabazteko asmodun erakundeekin hitzartutako zentroak) **foru titulartasuneko 4.971 plaza dauzka, guztiz beteta daudenak¹⁰.**

OKUPATUTAKO ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO PLAZAK, ZENTROEN TITULARTASUNAREN ARABERA (2013)



2013ko irailean **foru sarean zeuden 5.154 adinekoetatik**, Banako Laguntza Ekonomikoekin ingresatuta dauden adinekoak barnean direla (183), 10etatik 7 emakumeak dira eta erdiak baino gehiagok mendetasun-maila oso handia dute (III. maila)¹¹.

FORU SAREKO PLAZETAN INGRESATUTAKO ADINEKOEN EZAUGARRIAK



Egonaldi iraunkorrez gain, Gizarte Ekintza Sailak aldi baterako egonaldiko egoitza-zentroetan sartzeko aukera ematen du premiazko egoeretan edo atsedean hartzeko.

Halaber, foru sarean sartzea ezinezkoa den kasuetan, Legeak mendetasuna duten pertsonentzako egoitzen foru zerbitzua egoitzari lotutako prestazioa aurreikusten du, antzeko ezaugarriak dauzkan egoitza-zerbitzu batean errazago sartzeko, aldi baterako hileroko laguntza ekonomiko baten bidez, foru sarean sartzen diren arte. 2012. urtean, egoitzen foru zerbitzuari lotutako prestazioen kopurua –abenduaren 31n indarrean zeudenena– 240 prestazio izan ziren (233 egonaldi iraunkorren eta 7 aldi baterako egonaldian).

9. Azken datuak: 2013ko irailaren 30a. Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila.

10. % 99ko okupazioa 2013ko irailean (gainerako % 1a txandakatzearen ondorioa da), Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren datuen arabera.

11. Egoitza-zentroan sartzean egiten den mendetasun-mailaren balorazioaren arabera.




BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

BESTEREN LAGUNTZA BEHAR DUTEN ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ZENTROEN FORU ZERBITZU PUBLIKOA

Bizkaian eguneko zentroen plaza-bolumenak azken 6 urteetan izan duen bilakaerak % 20ko gorakada erakusten du; 2012an, **guztira 50 zentro ziren, 1.789 plazarekin**¹².

EGUNETAKO ZENTROETAKO PLAZEN KOPURUAREN BILAKAERA BIZKAIAN (2006-2012)



EGUNEKO ZENTROETAKO PLAZEN BANAKETA, TITULARTASUNAREN ARABERA (2006-2012)

Halaber, egoitza-azpiegituren garapenaren ibilbidearen ildo beretik, azken urteotan **gora egin du foru plaza publikoen proportzioak, erabilgarri dauden plazen % 35etik plaza guztien % 57ra (2012an).**




12. 2012ko abenduaren 31ko datuak. Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila..



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

Gaur egun¹³, guztira 1.308 adineko daude eguneko zentroetan, Banako Laguntza Ekonomikoekin ingresatutako adinekoak barne direla (391, guztira). Eguneko zentroetan dauden adinekoen % 74 emakumeak dira, eta pertsonen % 45ek mendetasunaren II. maila dute.

FORU SAREKO EGUNEKO ZENTROETAN DAUDEN ADINEKOEN EZAUGARRIAK




ADINEKOAK ETXEAN ZAINTEZKO PRESTAZIOAK

Bizkaiko Foru Aldundiak, 179/2011 Foru Dekretuaren bidez, familia barruko zaintzetarako prestazioa garatu du. Prestazio horren helburua, profesionala ez den zaintzaileak etxean emandako arretaren ondoriozko gastuen estalduran laguntzea da.

2012an, 10.584 pertsonak jaso zuten laguntza hori. Horrek esan nahi du hazkunde esponontziala egon dela 2007az geroztik prestazio horren onuradunen bolumenari dagokionez, pertsona bakoitzeko laguntzaren batez besteko zenbatekoa urtean 4.000 eurokoa izan dela.

Prestazio horren onuradun guztietatik, % 70 60 urtetik gorako pertsonak dira, eta horietatik, % 48k II. mailako mendetasuna dute.

FAMILIA BARRUKO ZAINZETARAKO PRESTAZIOA JASOTZEN DUTEN PERTSONEN BILAKAERA




13. Azken datuak: 2013ko irailaren 30a. Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila.



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

FAMILIA BARRUKO ZAINZETARAKO PRESTAZIOA JASOTZEN DUTEN PERTSONEN EZAUGARRIAK




GIZATEK PROGRAMA, AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO, ORIENTAZIOA EMATEKO ETA, SUSTAPEN HORRETAN LAGUNTZEKO PRODUKTUAK MAILEGATZEKO, ETA LAGUNTZEKO PRODUKTUAK EROSTEKO LAGUNTZA EKONOMIKOETARAKO FORU ZERBITZU PUBLIKOA

24/2009 Foru Dekretuak eta 2012ko diru-laguntzen deialdia onesten duen 202/2011 Foru Dekretuak araututa, Gizarte Ekintza Sailak, Gizatek programaren bitartez, jarduera mugatuta edo murriztuta duten pertsonen kasuak prebenitu nahi ditu, eta mugak dituzten pertsonen autonomia sustatu eta pertsona horiek gizarteratu ere bai. Horretarako, orientabiderako jarduketa teknikoa egiten du, ezintasun edo mendekotasun mota kontuan hartuz, haientzat egokiak diren laguntza produktuen eta metodo teknologikoen gainean, jasaten dituzten mugak konpentsatu edo arintzeko, eta produktu horiek eskuratzeko modua ere ematen du.

2012an, guztira **1.123 laguntza** eman ziren. Erantzundako eskabideen bolumen osotik, **% 69 60 urtetik gorako adinekoenak** ziren, eta **kasuen % 58 mendetasun egoeran** zeuden pertsonenak edo mendetasun egoeran egoteaz gain desgaitasunak zeuzkatenenak ziren.

GIZATEK PROGRAMAREN ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK – 2012





BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

ZAINDUZ PROGRAMA, FAMILIA BARRUKO MENDEKASUNARI LAGUNTZEKO PROGRAMA

Bizkaiko Foru Aldundiaren helburu orokorra, programa horren bitartez, hainbat jarduera garatzea da Bizkaiko Lurralde Historikoaren esparru geografikoan, **beren etxeetan bizi diren menpeko adineko pertsonen eta horien familia edo zaintzaileei lagundu eta laguntza emateko** modu orokorrean. Helburua zainketa afektiboa eta gertukoa erraztea da, eta pertsona horiek beren etxeetan geratzea lortzea bizi kalitatea hobetuz, bai pertsona horiena, bai zaintzaileena.

Programa hori garatzeko, lankidetzak-hitzarmenak ezarri dira tokiko administrazioekin, **prebentzio jarduerak, boluntariora jarduerak eta adineko pertsonak zaintzen dituzten pertsonentzako laguntza psikosozialak abian jartzeko**. Zehazki, **2012an, guztira 16 lankidetzak-hitzarmen sinatu dira Bizkaiko toki erakundeekin**. Hala, **Bizkaiko biztanleriaren % 75** artatzen da parte hartzen duten udalerrietan.


ATSEDEN-EKIMENAK

Askotariko ekimenak garatzea **zaintzaileen atsedena** bideratzeko. Horretarako, diru-laguntzak ematen dira Alzheimerri eta beste gaixotasun batzuk dauzkaten pertsonen eta beren zaintzaileen oporretarako. Horri esker, 2012an guztira 10 opor-bizikidetzak egin dira, eta horien onuradunak 234 pertsona izan dira.

ZAHARTZE AKTIBOA SUSTATZEKO EKIMENAK

- *Partaidetza, elkartegintza eta zahartze* aktiboa bultzatzea, **jubilatu**en etxe, klub eta elkarten mantenimendurako eta jarduerak eta programak egiteko diru-laguntzen bitartez. 2012an, guztira **Bizkaiko 186 elkarte** jaso zituzten diru-laguntzak. Horien zenbatekoa, orotara, 400.000 euro izan zen.
- Belaunaldi arteko ekimenak bultzatzea, adibidez belaunaldi arteko ibilaldiak, belaunaldi arteko lehiaketa gastronomikoak edo argazki lehiaketak, edo Nagusi Azokaren barruan egindako beste jarduera batzuk.
- Adinekoentzako lehiaketak antolatzea, modalitate hauetan: literatur lehiaketa, argazki lehiaketa librea, Adineko argazki lehiaketa eta pintura lehiaketa.

DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN TIPOLOGIA (2012)





III. ZAHARTZEA, ERREALITATE BERRIA



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

2. XEDEA ETA IKUSPEGIA

Gaur egungo egoera hau da: Bizkaiko biztanleen % 20 65 urtetik gorakoak dira (gizonen kasuan %17 eta emakumeen kasuan % 23), eta aurreikuspenen arabera, 2050ean Lurralde Historikoko biztanleen % 37 gutxi gorabehera adinekoak izango dira¹⁴. Hori dela-eta **Bizkaiaren asmoa bizitza publikoaren eta politika publikoen alderdi guztietan ondorioak dauzkan biztanleriaren egitura-aldaketa horri egokitzea da, aurrea hartuz eta errealitate berri horren aldeko ingurunea sortuz.**

Testuinguru horretan, Europa erreferentzia gisa hartuta, Bizkaiko Lurralde Historikoak beretzat hartzen du Lurraldea zahartzeari egokitzeko Europako estrategia, eta **xede** hau planteatzen du:

Bizkaiak, adin guztietarako **lurraldea** izanik, aukera gisa hartzen du zahartzea; alde horretatik **baldintzarik onenak sortu eta bideratuko ditu zahartze aktibo eta osasuntsurako,**

- adinekoen beharrian eta gurariengatik heterogeneotasuna aintzat hartuta.
- **adinekoen partaidetza eta ekarpenak Bizkaiko lurraldearentzat eta Bizkaiko gizartearentzat duen berezko balioarekin.**
- errealitate barri honi, erantzun barriak emanez.

Lurralde gisa etorkizunean lortu nahi dituen gauzei dagokienez, Bizkaiko Lurralde Historikoak adinekoei buruz duen **ikuspegia** honela definitzen da:

Bizkaiko Lurralde Historikoaren xedea 2020. urtean bizitza aktibo eta osasuntsuaren itxaropenari bi urte gehitzea da, eta horrez gain herritarren aintzatespena lortzea zahartzekeo lurralde hobezin gisa.

14. Eustaten 2050erako proiektio demografikoak, egoera honetarako: emakume bakoitzeko 1,07 seme-alaba, eta 89,6 urteko bizi-itxaropena gizonentzat eta 92,8 urtekoa emakumeentzat 2050. urtean, eta aldi osoan migrazio-saldo positiboa.



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

3. BALIOAK ETA PRINTZIOAK

Bizkaia adinekoentzat ere den Lurralde gisa garatzen parte hartzen duten eragile guztien jarduera inspiratu eta gidatu behar duten balio eta printzipioak, honako hauek dira:

Adinekoen eskubideen aintzatespena Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideei buruzko Gutunean "*25. art.: Batasunak onartu eta errespetatu egiten du pertsona adindunek bizitza duina eta independentea izateko, eta gizarte-bizitzan eta kultura-bizitzan parte hartzeko daukaten eskubidea.*"

- **Duintasuna**, adinekoak eskubideen subjektu gisa berresten dituen, pertsonak diren aldetik arreta eta errespetu berbera merezi baitute. Gizaki bakoitzaren duintasuna aintzatesteak esan nahi du bere **berezitasun, aniztasun eta dimentsioaniztasuna** aintzat hartu eta baloratzea, bere estatusarekin, osasun egoerarekin edo mendetasun-egoerarekin zerikusia duten estereotipoez harago.
- **Autoerrealizazioa**, adinekoek euren bizi-proiektuak garatzeko, euren ahalmenak sendotzeko eta gizartean laguntzeko eta modu aktiboan parte hartzeko aukerak bilatzeko eskubide iraunkorra aintzatesten duena; alde horretatik, euren eskura tresna eta aukerak jarri behar dira hori guztia gauzatu ahal izan dezaten.
- **Autonomiaren printzipioa**, adinekoek euren **kabuz erabakitzeko ahalmena ahalik gehien eusteko nahia** aintzatesten duena, eta elikaduraren, etxebizitzaren, uraren, diru-sarreraren, trebakuntzaren, garraioaren eta segurtasun fisikoaren oinarritzko materialei buruzko eskubideak egikaritzeko ziurtasunari oso estu lotuta dago.
- **Partaidetza**, ekimenen edo ekimen horietarako proiektuen plangintzaren eta betearazpenaren barruan adinekoen beharrezkoak, gaitasunak eta gogoak kontuan hartzea eskatzen duena. Adinekoek zuzenean eragiten dieten erabakiei buruz **kontsulta jasotzeko eskubidea** dute, eta eskubide hori gauzatzeko bideak ezarri behar dira.



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

- **Arreta.** Printzipio horrek berretsi egiten du adinekoek eskubi-dea dutela **laguntza** edukitzeko, euren bizi-proiektua edozein testuingurutan (erkidegoan edo erakundeetan) modu aktiboan garatzeko, **eta euren lehentasun pertsonalen araberako arreta jasotzeko.**
- **Berdintasuna.** Adinekoek gizarte-eskubide guztiak eskuratzeko duten aukera-berdintasuna sustatu nahi da, **zerbitzu eta prestazioak jasotzerakoan adineko guztien unibertsaltasuna bermatuz.**
- **Inklusioa,** adinekoen bizi-proiektua garatzeko sustapena **arreta erkidegoan jarrita planteatzen duena,** adin guztietako pertsonen (belaunaldi artekotasuna) eta zerikusia duten gainerako eragileen (familia. Erkidegoa, administrazioak, gizarte-ekimena, etab.) **partaidetza eta laguntzarekin,** bizi-proiektuak erkidegoan garatu behar direla kontuan hartuta.



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

4. ESPARRU ESTRATEGIKOA

Biztanleriaren zahartzea oraingo eta etorkizuneko errealitate gisa hartzea, eta Lurraldea horretarako egokitzea, Bizkaian lehentasuna da, eta hala izan behar da. Horretarako premisa eta aintzat hartu behar dena da adinekoek berezko balioa dutela, eta horrenbestez Bizkaiko gizartearentzat kapital aktibo garrantzitsua direla aintzat hartu behar dela.

Errealitate berri horrek Lurraldeko pertsona, erakunde eta eragile guztiak interpelatzen ditu. Pertsona, erakunde eta eragile horiek euren erantzunak birdefinitu beharko dituzte, eta zahartzen ari diren pertsonen bizi-proiektuak garatzeko aukerak sortu, zahartze hori aktiboa eta osasuntsua izan dadila bideratuz.

Alde horretatik, **Bizkaiko Lurralde Historikoa helburu horrietarantz eraldatzeko bidea gidatu beharko duten estrategiek**, adinekoek bete behar dituzten beharrizan nagusiei erantzuna ematen diete eta **zahartze aktibo eta osasuntsua bermatzen** laguntzen dute:

- **Aukerak bideratzea, adinekoek "asmo" bat eduki ahal izan dezaten eta euren bizi-proiektuak garatu ahal izan ditzaten**, esparru formalean zein ez-formalean, lagunaren artean eta familian, lan-merkatuaren barruan edo lan-merkatutik kanpo, lagungarriak, errespetatuak eta aintzatetsiak direla sentitu ahal duten ingurune batean (langile, boluntario, jagole, ekintzaile/a, aholkulari, zain-tzaile, etab. gisa)
- **Adinekoengan ongizate-sentimendua sustatzea**, bizi-baldintza osasuntsuak bultzatuz, aktiboak eta fisikoki osasuntsuak, eta emozionalki sendoak izan daitezen; adinekoen zorientasunean, erabakitzeko ahalmenean, intimitatean eta harreman pertsonaletan arreta jartzea.
- **Baldintzak sortzea adinekoak "etxean, edo etxean bezala sentitzeko"**, dauden tokian daudela, autonomiarik handienarekin eta arreta erkidegoan jarrita, adinekoak **beren gizarte-laguntzako sarearekin** (familia, lagunak, erkidegoa...) **"konektatuta" egon daitezen**, eta gizartean modu aktibo eta solidarioan parte har dezaten.





**IV. BIZKAIKO FORU
ALDUNDIKO GIZARTE
EKINTZA SAILAREN
ZEREGINA**



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

5. GIZARTE EKINTZA SAILAREN ESTRATEGIA ADINEKOEI BURUZ

Lurraldean adinekoen arretarako eta garapenerako erantzukizun publikoa duen erakunde-eragile gisa, **Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak konpromiso hau** hartu du bere eskumenen esparrutik abiatuta: *"Bizkaia, adin guztietarako lurraldea izanik, aukera gisa har dezala zahartzea; alde horretatik baldintzarik onenak sortu eta bideratuko ditu zahartze aktibo eta osasuntsurako"*. Hain zuzen ere, hori izango da Lurraldearen estrategiaren xedea, zahartzearen erronkari aurre egiteko.

Gizarte Ekintza Sailaren konpromisoa, "Bizkaia, adinekoentzat ere den Lurraldea" izan dadila lortzea, guztiz bat dator Sailaren beraren estrategiarekin; alde horretatik ingurune egokia sustatzen da eta zahartze aktibo eta osasuntsurako zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeko bermea ematen da.

GIZARTE EKINTZA SAILAREN XEDEA

Bizkaiko Foru Aldundiaren jardueraren oinarritzko helburuak hauek dira: herritar guztien bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzen laguntzea, baita Bizkaiko gizartearen garapen orokor, bidezko, solidario eta jasangarrian ere, aberastasuna sortuz, aberastasun hori banatzeko eta jarduketa publikoen ardatzean pertsonak kokatuz; horretarako, ingurune egokia sustatuko da euren eskubideak baliatzeko, euren aukerak handitzeko eta euren ahalmenak garatzeko.

Hori lortzeko, Gizarte Ekintza Sailaren xedea zerbitzu eta baliabideak eman eta bermatzea da, baita gizarte ekimenak bultzatu eta indartzea ere, behar duten pertsona eta familia guztiei bizi-za duina izateko laguntzeko, euren eskubide guztiez gozatzeko laguntzeko, eta aniztasunetik abiatuta gizartean parte hartzen laguntzeko.

Helburu hori lortzeko, politika integratzaile eta normalizatzaileak garatuko ditu, pertsona guztiek parte hartu ahal dezaketean gizarte inklusiboa ahalbidetzen dutenak, bere eskumenen barruan eta beste eragile batzuekin lankidetzan.



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Adinekoen estrategian duen zeregina indarreko lege-esparruak ezarritako **eskumenen esparruak** definitzen du. Oinarri gisa, gizarte-kapitala edo harremanen arloko kapitala sortzen lagunduko duen **gizarte-politika** taxutzea izan behar da, eta konfiantza-sareei eta familiako eta erkidegoko bizitzari dagokienez erantzukizun publikoa erronka gisa hartu behar da, ez sare horiek ordeztzeko, baizik eta beren indargarri, laguntza eta sendotzeko oinarri moduan.

Horrelako gizarte-politika bat gauzatzeko, Gizarte Ekintza Sailak erantzukizun publikoa hartu behar du arlo horretan, **premisia hauekin**:

- Laguntza hutsean eta burokrazian oinarritutako ikuspegia baztertzea, ikuspegi horrek pertsonen sare eta inguruneak ordezten baititu.
- **Autonomia pertsonala**, erkidegoaren aktibazioa eta gizarte-autogestioa sustatzen dituzten zerbitzu pertsonalak eta esku-hartze kolektiboak garatzea.
 - Arreta **harremanetan eta erkidegoan** jarrita duen ikuspegi batetik, pertsonen euren ingurunean geratu ahal izateko laguntza malguak eskaintzea helburu duena.
 - Neurriak sustatuz, familia-bizitza, auzo-bizitza eta erkidego-bizitza erraztu eta indartzeko, eta bizitzaren beste alderdi batzuekin uztartzeko.
 - **Sarean beste pertsona batzuekin erantzukizuna konpartituz**, autonomia pertsonala sustatzeko eta familian eta erkidegoan integratzeko
- **Sinergiak bilatzea** administrazio publikoek bermatutako gizarte-eskubideen eta herritarrek baliatzen dituzten gizarte-erantzukizunen artean, elkartegintza eta lankidetzaren formula batzuen eta besteen bitartez, formula altruistak edo mutualitate-formulak izan, formalizatuak edo ez hain formalizatuak.
- **Berrikuntza eta dibertsifikazio** etengabeak, gizarte-zerbitzu eta prestazioen formatu eta edukiei dagokienez.

Hala, testuinguru honetan, gizarte zerbitzuen eskaria handiagoa denean, eta herritarrek gizarte-zerbitzuen sistema publikoari buruz iguripen eta eskari handiagoak dauzkatenean, bereziki adinekoen eremuari dagokionez, Gizarte Ekintza Sailaren apustua hau da:

- erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistema sendotzea, kudeaketa publiko-pribatuko eredu bat sendotuz.
- familiek eta hirugarren sektoreak beharrezko erantzuna ematen parte har dezatela sustatzea modu aktiboan.
- laguntza formalaren eta informalaren artean oreka berri bat bideratzea.
- "gizarte-kapital eta ehuna" iraunarazi eta sortzea, familiak eta gizarte-ekimena ordeztu gabe behar bezala egiten dituzten edo egin ahal dituzten zereginetan.



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

- erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea, esparru horretako zerbitzuen eraginkortasun eta eragingarritasuna hobetzeko.

Eta horretarako, Bizkaiko Adinekoen strategiaren esparruan, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak **bi lan-ildo aldi berean** garatzeko konpromisoa hartu du;



Adinekoen autonomia sustatzea, bideratzea eta laguntzea, esangura zaballean hartuta; horretarako, mendetasun-egoerei aurrea hartzeko estrategiak eta mendetasun-egoerak artatzeko baliabide egokien eskaintza bultzatuko dira.



Beste jarduera-eremu, azpiegitura eta sistema batzuetako ekimenen garapena bultzatzea, Lurraldea zahartze aktibo eta osasuntsurako ingurune egoki bihurtzeko.



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

6. AGERRALDI ESTRATEGIKOA: ARDATZ ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Testuinguru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Adinekoen politikak etorkizunean gidatuko dituzten lan-ildoak, zahartze aktibo eta osasuntsua bermatze aldera talde horren beharrianei programa-, zerbitzu- eta prestazio-zorro zabalaren bidez erantzuteko helburuari erantzuten diotenak, honako hauek dira:



Adinekoen autonomia sustatzea, bideratzea eta laguntzea, esangura zaballean hartuta; horretarako, mendetasun-egoerei aurrea hartzeko estrategiak bultzatuko dira, eta mendetasun-egoerak artatzeko baliabide egokien eskaintza ere bultzatuko da.

Adinekoen beharrianei Sailaren jarduera-eremutik abiatuta eman ahal zaie erantzuna, eta beharrian horien arabera, lan-ildo hau **hiru ardatz estrategikotan** banatzen da: mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta, adinekoak etxean geratzeko laguntza eta adinekoen autonomia pertsonala sustatzea.

Mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzea, horiek baitira ahultasun egoerarik larrienean dauden pertsonak eta baliabideak eskuratzeko arreta eta lehentasun handiena eskatzen dutenak.

Laguntza ematea besteren beharra duten pertsonak euren etxeetan gera daitezen; horretarako, baliabideen eskaintza egokituko da pertsonen euren ohiko ingurunean geratzeko duten asmoaren eta zaintzaileentzako laguntzaren arabera.

Autonomia Pertsonala sustatzea, bizitza aktibo eta osasuntsuari urteak gehitzeko.




Beste jarduera-eremu, azpiegitura eta sistema batzuetako ekimenen garapena bultzatzea, Lurraldea zahartze aktibo eta osasuntsurako ingurune egoki bihurtzeko.



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

Esparru horretan, **lau ardatz estrategiko** planteatzen dira Gizarte Ekintza Sailaren jarduera gidatzeko. Hala, beste eragile eta erakunde batzuen ekimena bideratuko da zahartze aktiboaren dimentsio batzuetan eta besteetan.





BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

ESTRATEGIA HELBURU ESTRATEGIKOETAN AGERRARAZTEA

Jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak planteatutako ardatz estrategikoak garatzeko etorkizunean landuko dituen testuingurua eta helburu estrategikoak zehaztuko dira.



Adinekoen autonomia sustatzea, bideratzea eta laguntzea, esangura zaballean hartuta; horretarako, mendetasun-egoerei aurrea hartzeko estrategiak eta mendetasun-egoerak artatzeko baliabide egokien eskaintza bultzatuko dira.

1. MENDEASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA, HORIEK BAITIRA AHULTASUN EGOERARIK LARRIENEAN DAUDEN PERTSONAK ETA BALIABIDEAK ESKURATZEKO ARRETA ETA LEHENTASUN HANDIENA ESKATZEN DUTENAK.

Ardatz estrategiko honen bidez erantzuna eman nahi zaie adineko jakin batzuen beharriari, mendetasun egoeran dauden pertsonen euren bizitza-proiektua garatzeko laguntza eta beste pertsona batzuen babesa behar dituztelako.

Esparru horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren indargune bat erabilgarri dauden baliabideen erabilgarritasuna da; Lurraldeak **baliabide-sare nahikoa eta aurreratua dauka, lurralde aldetik orekatua mendetasun egoeran dauden pertsonak artatzeko:**

- **Egoitza-zentroak:** Lurralde Historikoak guztira 10.130 plaza baimendu dauzka adinekoentzako 148 egoitza-zentrotan, eta plaza horien % 50 gutxi gorabehera foru titulartasunekoak dira, formula batekin edo besterekin.
 - Egoitza-zerbitzuen estaldura-ratioa 2009an batez beste 4,8 zen EAEn eta 4,9 Bizkaian, Lurraldean baimendutako plazak orotara hartuta. Horrek esan nahi du tarteko posizioan gaudela EBko herriekin alderatuta Suediaren edo Finlandiaren parean¹⁵. Bizkaian foru erantzukizuneko egoitza-plazen kopurua ia-ia bikoiztu egin da azken 10 urteetan. 2012an 4.947 plaza ziren.
 - Gauzak horrela, egoitza-azpiegituren gaur egungo mapa nahikoa dela esan daiteke; halaber, etorkizunean foru sarearen ahalmena handitzeko aukera dago, hitzarmenen bidez, zerbitzu horien beharriari izan dezaketean gorakadari erantzuna emateko.
 - Horrez gain, egoitza-zerbitzuen gaur egungo sareak arreta zerbitzu aurreratuetan jarria du. 2013an 110 plaza zeuden foru sareko egoitza-unitate soziosanitarioetan (Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin hitzartuak). Onuradunek batez beste 70 urtetik gorako adina dute, eta berriazko profil espezializatuak apurka sartu daitezela aurreikusi da.

15. Iturria: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren II. Txostenaren datuak.



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

- *Eguneko zentroak*, gutxi gorabehera foru titulartasuneko 928 plaza Lurralde osoan, eta guztira 1.308 plaza, Banako Laguntza Ekonomikoak kontuan hartuta.

Testuinguru horretan, eta zentroen eta azpiegituren gaur egungo mapari dagokionez posizio ona daukagula kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren lehentasun estrategikoak, mendetasunaren arretan, hauek izango dira: **gaur egungo baliabideak hobetu, espezializatu eta egokitzeko ekimenak garatzea, sare nahikoa, aurreratua eta pertsona ardatz hartzen duena helburu izanik**, mendetasunak dituzten pertsonentzako arretaren ereduak garatzeko beharriaz erantzuna emateko.

Ikuspegi horretatik, Gizarte Ekintza Sailak ardatz estrategiko horri erantzuteko planteatzen dituen helburuak hauek dira:

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Egoitza-baliabideen foru sare publikoaren gaur egungo estaldura maila sendotzea, eta bere **garapena eta espezializazioa sustatzea "pertsona ardatz duen sare aurreratu gisa"**, arretari dagokionez konplexutasun handiagoa duten egoerei erantzuna emateko, bai gizarte-arloan bai zaintzaren arloan, egoera horiek etorkizunean areagotuko baitira; horretarako, erabiltzaileak arretan duen berebiziko garrantzia aintzat hartu behar da.
 - Datozen urteotan **adinekoen egoitza berriak** abian jartzea.
 - Egoitza-unitateak **espezializatzea eta unitate horien xede gisa** gizarte arloan zein osasun arloan konplexutasun handia duten egoeren arreta jartzea; horretarako, berriazko arreta-ereduak diseinatuko dira berriazko baliabideez hornituz.
 - **Egoitza-arretan kasuaren koordinazioaren figura bultzatzea**, foru erantzukizuneko zerbitzuen horniduran parte hartzen duten erakundeekin lankidetzan, pertsona ardatz duen plangintzaren ikuspegitik.
 - **Arretaren profesionalizazioa sendotzea**. Horretarako, lanbide-profilen egiazta-pena bultzatuko da eta prestakuntza bideratuko da, osasunaren, psikologiaren, gizartearen, etab.en arloetan, bai zeharkako gaitasunetan, profesionalen lan-baldintzak bermatuz eta euren lana aintzat hartuz.
 - **Arretaren kalitatea betetzea** foru sarean integratutako zentro guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren baliabideak garatuz eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan arituz, zentroen homologaziorako araudia garatzeko, hirugarren adinarentzako egoitza-zerbitzu sozialei buruzko Dekretua eguneratzeko eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea garatzeko, funtsean gizarte zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa arautu behar duen dekretuari dagokionez.
 - Foru titulartasuneko baliabideetan **zerbitzu, prozedura eta dinamika berriak** sartzeko esperientzia pilotuak garatzea, pertsona ardatz duen arreta-eredu baten ikuspegitik.



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

- Etika Batzordeak garatzea.
- Familiekin informazioko eta komunikazioko bide formalak eta informalak ezartzeko prozedurak abian jartzea, familien aintzatespena jaso dezaten, ez soilik erabiltzaileen euskarri emozional gisa, baizik eta talde profesionalaren lankide natural gisa ere bai, euren partaidetza sustatuz.
- **Eguneko zentroen malgutasuna** indartzea, erkidego-ikuspegia garatzen eta mendeko pertsonen familia- eta gizarte-estaldura mantentzen laguntzen duen zerbitzua den aldetik, etxean egon daitezela bultzatuz.
 - Eguneko zentro berriak irekitzea, sarea lurralde aldetik modu orekatuan osatzeko.
 - Eguneko Zentroen zerbitzua hedatzea, **Eguneko Zentroak asteburuan irekiz**, zentroek zaintzaileen atsedeen-zerbitzu gisa duten zeregina bultzatzeko.
 - Eguneko Zentroak **malgu bihurtzea**, laguntza- eta zaintza-beharrizanei lehentasuna emanez.
- **Lankidetzari handiagoa bultzatzea eta baterako estrategiak diseinatzea gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren eta osasun-sistemaren artean**, eremu soziosanitarioan konplexuagoak diren egoerei erantzuteko, honako lan-esparru hauetan:
 - **Arretarako eredu soziosanitarioa** adostea konplexutasun handiagoko profil jakin batzuetarako, jarduera soziosanitarioen bateratze edo koordinazioa eskatzen duten mendeko pertsonentzat.
 - Adinekoei laguntza soziosanitario egokia eman ahal izateko **prozedurak** ezartzea¹⁶:
- Historia sozio-sanitarioa garatzen eta ezartzen laguntzea.
- Osasun arloa eta gizarte zerbitzuak koordinatzeko mekanismo eta prozedurak ezartzen eta aplikatzen pate hartzea, hirugarren sektorearen partaidetzarekin, dela egoitzetarako, dela beste baliabide soziosanitario batzuetarako, berdintasun eta eraginkortasun irizpideak ziurtatuko dituzten jarraibide eta protokoloen bitartez.
- Laguntza sozio-sanitario koordinatu eta integratuaren garapena sustatzea.
- Euskadirentzat zerbitzu-gutun soziosanitarioa definitzen parte hartzea.
 - Koordinazioa bultzatzea arretaren utzikeriako egoerak prebenitu eta artatzeko, eta besteren beharra duten pertsonen abandonu eta tratu txarren egoerak prebenitu eta artatzeko ere bai.
- **Udaletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin koordinazio handiagoa** bultzatzea, udalen arloko gizarte zerbitzuen eta foru arlokoen artean trantsizio eraginkorragoa bermatu ahal izateko; horretarako, komunikazio-protokolo batzuk ezarriko dira informazioaren elkartrukea erraztu eta hobetzeko.

16. 2013-2020 aldiko Osasun Planaren zirriborroan aurreikusitako "Laguntza "Soziosanitarioa"ren helburua lortzeko ekintzekin bat dator.



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

2. LAGUNTZA EMATEA BESTEREN BEHARRA DUTEN PERTSONAK ETXEAN GERATU AHAL IZAN DAITEZEN, BALIABIDEEN ESKAINTZA EGOKITUZ, PERTSONEK EUREN OHIKO INGURUNEAN GERATZEKO DUTEN GOGOIA ETA ZAINZAILIEN LAGUNTZA KONTUAN HARTUTA.

Adineko pertsona gehienek etxean zahartu nahi dute, eta hala adierazten dute; bizitzari jarraipena ematerakoan lehentasunezko aukera da norberaren jabetzak eta oroitzapenak inguruan edukitzea, independentzia eta pribatutasuna mantentzea, eta gainera, pertsonak bere erabaki propioak hartzen jarrai dezala lortzea.

Horretarako, beharrezkoa da **laguntza eta zerbitzuen garapen dibertsifikatua** planteatzea, adinekoek etxean bizitzen jarraitu ahal izan dezaten, mendetasun maila handiak daukatenean ere bai, euren gizarte-beharrizanak betetzeko eta euren bizi-kalitatea hobetzeko.

Halaber, adineko pertsonen aldeko Nazio Batuen printzipioek diotenez, **zaintzaz arduratu behar dena ez da izan behar familia soilik**. Horretarako, ingurunean zaintzak behar dituzten adinekoak artatzeaz arduratzen direnei laguntza eman behar zaie.

Gauzak horrela, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren ustez, zaintzaren egin-behar guztiez familia soil-soilik arduratzen bada, ez da berdintasuna zaintzen, eta beraz, **erantzukizun publikoko neurri batzuk indartu behar dira zaintza bideragarri bihurtzeko, eta beharrezkoa denean erantzukizuna konpartitzeko**, dela osasunaren babesaren dimentsiotik, dela familia-bizitza uztartzeko sustapenaren eta adinekoen zaintzaren kalitate eta berdintasunaren dimentsiotik.

Are gehiago, zaintzaren giza ikuspegitik, kontuan hartu behar da pertsonarik ahulen eta behartsuenek ez dituztela behar soilik bidezko babes eta laguntza bermatzeko lege eta erakundeak; aitzitik, beren ondoan harremanen sare bat ere behar dutela, euren inguruan egongo diren pertsonen sare bat, laguntzeko eta beraiei arreta emateko. Hala, justiziaren etikak zaintzaren etikaren osagarria behar du, eta hortaz, **zaintza horri arreta eman behar zaio, baita zaintza hori ematen duten pertsoneri ere, motibazioa eta prestakuntza daukaten zaintzailen sare on bat** edukitzeko.

Bizkaian, gaur egun 11.000 zaintzailek familien barruko zaintzarako prestazioa jasotzen dute, eta prestazio ekonomiko horretarako laguntza gehigarriak eskatzen dituzte.

Gauzak horrela, eta premisa horiei erantzuteko helburuz, aldundiaren funtsezko helburua da **besteren beharra duten pertsonak etxean gera daitezela** bultzatzeko programak garatzearen aldeko apustu irmoa egitea, eta **zaintzailen arreta eta laguntzarako** ekimenak garatzea, familia gizarte-kohesioaren eta belaunaldi arteko elkartasunaren berme gisa hartuta, eta gaur egun zaintzaileri laguntzeko dauden sistemak Bizkaian besteren beharra duten pertsonen zaintzaile guztiengana hedatzeko helburuz.



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Familia barruan zaintzeko prestazio ekonomikoaren** zenbatekoei eustea Bizkaian, prestazio hori Aldundiak sortutako beste laguntza batekin osatuz, zaintzaileentzako laguntza gisa, atsedeneren edo prestakuntzaren eremuan.
- **Adinekoak zaintzen dituztenei laguntzeko Zainduz Foru Programa indartzea**, eta Bizkaiko udalerrri guztietan ezarri eta gara dadila **sustatzea**. Hala, **prebentzio jarduerekin, boluntariora jarduerekin eta pertsona nagusiak zaintzen dituztenei laguntza psikosoziala eskaintzeko programa unibertsala izango da**.
- **Atsedeen-programak indartzea** eta ahalik eta onuradun gehienengana hedatzen saiatzea, **erabilgarri dauden atsedeen-zerbitzuen** zorroa handituz:
 - Asteburuko atsedeen-zerbitzuak.
 - Udako atsedeen-zerbitzuak.
 - Etxe barruko atsedeen-zerbitzuak.
 - Eguneko zentroetako atsedeen-zerbitzuak.
 - **Egoitza-zentroetako atsedeen-zerbitzuak**.
- Bizkaian besteren beharra duten **pertsonak zaintzen dituztenei prestakuntza eta laguntza** emateko programak diseinatu eta garatzea, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan.
 - Laguntza-sare informaleko pertsonen prestakuntza emateko programak
 - Ospitaleratuta dauden pertsonak zaintzen dituztenentzako prestakuntza-programa, alta jasotzean porrot egin ez dezaten.
- **Adinekoen eta euren zaintzaileen zerbitzura jartzea** unibertsitate eta teknologia-zentroekin lankidetzan garatutako **baliabide tekniko eta teknologikoak**, familia barruko zaintzan laguntzeko; horretarako pizgarria emango da teknologia berrien aukera guztiak pertsonen ongizatearen onerako erabiltzeko, eta Bizkaia lurralde berritzailea izaten lagunduko da, zahartze aktiboa eta osasuntsua bideratzeko teknologia erabiltzeari dagokionez.
- Zaintza-lanetan genero-berdintasuna bultzatzea eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzan gaur egun gertatzen den feminizazioak daukan ondorioei buruz sensibilizazioa sortzea.
- **Ongizatearen eta zaintza onaren alde egitea, mendetasun-egoeran daudela etxean geratzen diren pertsonentzat zein pertsona horiek zaintzen dituzten pertsonentzat**, eta alde horretatik, besteren beharra duten pertsonen euren etxeetan duten egoera eza-gutu ahal izateko eta familia barruan gertatu ahal diren tratu txarren egoerak identifikatzeko orain arte egin diren ekimenekin aurrera jarraitzea. Hori lortzeko, zaintzaileen trebakuntza bultzatu behar da, beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko prest egotea beharrezkoa izango da, tratu txarrak jasaten egon ahal diren adinekoen prebentziorako, detekziorako eta arretarako jarduketaren protokolo bat definitze aldera.



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

3. AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEA, BIZITZA AKTIBO ETA OSASUNTSUARI URTEAK GEHITZEKO.

Bizkaiko gizarteak Europako bizi-itxaropenaren tasarik handienetako bat dauka, Euskadin lortutako ongizate-kotei eta zientziaren eta medikuntzaren aurrerapenei esker.

Gauzak horrela, estrategia honetan planteatutako ikuspegiarekin bat etorritz, planteatzen den helburua da Bizkaian **bizitza aktibo eta osasuntsuari urteak gehitzea**.

Erronka horretan zeharo garrantzitsua da **bizi-ohitura osasuntsuak izatea** eta gizartean adinekoek **modu aktiboan parte hartzea**; hori, mendekotasunaren prebentzioaren sinonimoa da. Alde horretatik, helburuen ardatzak mendekotasunaren prebentzioa eta autonomiaren sustapena izan beharko dira. Horretarako, zahartze aktibo eta osasuntsua bultzatzeko zerbitzu eta ekimen espezifikoak beharrezkoak izango dira.

Osasunaren Munduko Erakundeak honela definitzen du zahartze aktiboa: *"Pertsonen bizi-kalitatea bermatzeko osasun, parte hartze eta segurtasunerako aukerak hobetzeko prozesua zahartzen diren heinean"*¹⁷. Definizio hori pertsonak gizartean, ekonomian, mundu espiritualean eta herritarren munduan etengabe parte hartzeko "jarduera"ri lotuta dago, eta ez bakarrik, ordea, ikuspuntu fisikotik aktibo egoteari edo lanbide-jarduera garatzeari. **Partaidetza funtsezko bidea da adinekoak "aktiboak" izan daitezen eta "konektatuta" egon daitezen**. Hortik abiatuta, garrantzitsua da elkarte edo erakundeen zeregina finkatu eta bultzatzea, adinekoen partaidetza bermatzeko eta pertsona horiek gizarteari eskaini ahal dizkioten jakintza eta esperientzia aintzatesteko tresna den aldetik.

Testuinguru horretan, Gizarte Ekintza Sailak esparru horretan planteatutako helburu nagusiak hauek dira: **adinekoen gizarte-partaidetza aktibo eta solidarioa sustatzea, adinekoak benetako gizarte-eragileen zeregina baitute, eta horrez gain, mendetasuna prebentzeko bideratutako ekimenak garatzea**; helburu horiek garatzeko kontuan hartuko dira adinekoek Bizkaian dauzkaten askotariko ezaugarriak, eta adinekoen beharizan eta lehentasun ugari eta askotarikoei arreta emango zaie.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- Mendetasunaren **prebentzioa bultzatzea**, autonomia pertsona sustatzeko bidea den aldetik, oztopoak –fisikoak zein irudizkoak, estereotipoak, alegia– desagerraraziz.
 - **Oztopoak desagerraraztea Gizatek programa mantenduz eta bultzatuz**, Bizkaiko pertsonen jardueraren muga fisikoak edo herritar gisako partaidetzaren murrizketak konpentsatu edo arindu ahal izateko laguntza-produktuei buruzko orientazio-zerbitzu gisa:



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

- Eskuragarri dauden prestazio edo zerbitzu batzuk zein besteak eskuratzeari buruzko aholkua.
- Orientazioa autonomia pertsonala hobetzeko baliabide teknikoaren inguruan egokitasunari buruzko txosten teknikoaren bitartez.
- Besteren beharra duten edo urritasunen bat duten pertsonen laguntzeko produktuak eskuratzeko diru-laguntzak.
- Laguntza-produktuen mailegu-zerbitzua abiaraztea
- **Adinekoei buruz dauden estereotipoak ezabatzea**, Bizkaiko Foru Aldundia buru duen edozein ekintzatan planteatu beharreko **zeharkako helburu gisa**, adinekoek gure gizartean egiten dituzten ekarpenak aintzat hartuta; sentsibilizazioa, diskurtsoaren zaintza, adinekoek euren buruaz duten ustea garatzea, hedabideak, etab.
- Autonomia pertsona sustatzea helburu duten **zentroen eredu berriak bultzatzea**; zentro irekiak, malguak, funtzio anitzekoak, adineko pertsonen askotariko beharrezaneko egokituak.
- **Adinekoen elkartegintza sustatzea**, gizartean parte hartzeko bide gisa, baita komunitate-ingurune bat ere, adineko pertsonak "konektatuta egon" ahal izan daitezen. Horretarako, zahartze aktiboko jarduerak bultzatuko dira eta belaunaldiak elkarrengana hurbiltzeko ekimenak garatuko dira, Bizkaiko elkartegintza-sarearekin lankidetzan.
- **Bizkaiko Adinekoen Kontseilua sustatu eta dinamizatzea**, adinekoentzako politikak adinekoekin egiteko elkarriketarako bide gisa, 2005ean hasitako lan-ildo horrekin aurrera jarraitzeko.
 - Adinekoen Kontseiluaren lan-planak garatzea, baldin eta kontseilu hori politikan, legedian eta gizartean aldaketak bultzatuko dituen partaidetzako eta kontsulta eraginkorreko organo gisa sendotu dadila bultzatzen badute.



Beste jarduera-eremu, azpiegitura eta sistema batzuetako ekimenen garapena bultzatzea, Lurraldea zahartze aktibo eta osasuntsurako ingurune egoki bihurtzeko dadin.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak Lurraldea zahartze aktibo eta osasuntsurako ingurune egoki bihurtzeko **beste jarduera-eremu batzuetako ekimenen garapena bultzatzeko hartu duen konpromisoa, adinekoen eremuan gizarte-berrikuntza sustatzaren ikuspuntutik garatuko da, hala errealitate berri horri erantzuna eman ahal izango zaiolakoan; horretarako, beste sail, erakunde maila eta/edo eragile batzuekiko lankidetzak sustatuko da**, eta bide horretatik honako helburu estrategiko hauek sortuko dira.



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Bizkaia adinekoekin lagunkoia den Lurralde bihur dadila bultzatzea;** horretarako ingurune lagunkoien kontzeptua garatzeko estrategietarako garatzeko laguntza- eta sustapen-tresnak garatuko dira, tokian tokikoaren ikuspegitik, tokiko administrazioaren eta adinekoen partaidetzarekin.
- Adinekoen arloan **erakunde arteko lankidetzeta eta koordinazioa** bultzatzea, **Zahartze Aktiboaren dimentsio** batzuk eta besteak garatzeko. Hori beste **eragile publiko eta pribatu batzuekin** batera aztertu behar da hainbat esparrutan, adibidez enpleguan, partaidetzan, autonomian bultzadan, bizitza osasuntsu eta seguruan, edo zahartzea aktiboa izan dadin ingurunean egiten den parte hartzean.
- **Bizkaian gizarte-berrikuntza sustatzea;** horretarako, **gizarte-ekimen berritzaileen garapena** bultzatu behar da, XXI. mendeko gizarte- eta ekonomia-erronken konponbidearen zati garrantzitsua baita. Erronka horietako bat biztanleriaren zahartzea da. Hain zuzen ere, hori bat dator Europa 2020 Estrategiarekin: estrategia horrek gizarte-berrikuntza "hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzailea"ren helburuak lortzeko lehentasunezko tresna dela dio.
- **Bizkaiko Lurralde Historikoko Adinekoen Behatokia bultzatzea.** Kide anitzeko aholku-organo tekniko horren helburua hau da: informazio sistema bat ezartzea, ahalmena izango duena Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoen osasun, ekonomia eta gizarte egoera eta erakundeen politikek kolektibo horrengan duten eragina aztertzeko.



V. ERANSKIN
METODOLOGIKOA



BIZKAIKO ADINEKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

7. PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEKO METODOLOGIA – ALDERATZE-SAIOAK

Bizkaiko Adinekoen Estrategiaren definizio-esparruan, **alderatze-prozesu bat egin da, talde hauekin egindako talde-bileretan oinarrituta:**

- *Adineko Autonomoekin alderatzea:*

- Taldearen ezaugarriak: 6 pertsona, emakume zein gizonak, 60 urtekoak, beren kabuz moldatzen direnak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko hainbat inguru geografikotan bizi direnak.
- Helburua: "*Adinekoekin lagunkoia den gizarte baterantz*". Adinekoek euren eguneroko bizimoduan familian eta erkidegoan osasuntsu eta parte-hartzaile aktibo sentitzeko ikusten dituzten erraztasunak eta oztopo edo arazoak identifikatzea.

- *Bizkaiko Egoitza-zentroetan dauden adinekoen senideekin alderatzea:*

- Taldearen ezaugarriak: 6 pertsona, emakume zein gizonak, senideren bat egoitza batean daukatenak, eta senide horrekin lotura moderatua edo handia dutenak.
- Helburua: "*Familiei egoitza-zentroetan arreta ematea, egoitzan dagoen pertsonaz gain kontuan hartu behar den erabiltzaile gisa*".
 - Familiek egoitza-zentroen gaur egungo beharrian eta mugei buruz duten iritzia eta partaidetza-maila zein diren jakitea.
 - Familiek egoitza-zentroetan dauden adinekoen arretan gaur egun duten partaidetza baloratzea. Etorkizuneko eskariak.

Horrez gain, Plan Estrategiko hau definitzeko prozesuan, kontuan hartu dira Gizarte Ekintza Sailak adinekoen arloko beste talde interesgarri batzuekin aurretiaz egindako alderatze-saioetan lortutako emaitzak.

- *Besteren beharra duten pertsonak zaintzen dituztenekin alderatzea:*

- Taldearen ezaugarriak: Besteren beharra duten pertsonak modu informalean zaintzen dituzten 6 pertsona, ezaugarri hauek dituztenak:



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

- Zaintzailearen ezaugarriak: emakumea, batez beste 69 urtekoa, oinarrizko eskolatzearekin eta lanbidez etxekoandrea, bere senarra zaintzen. Zaintzen batez beste eman duen denbora: 6 urte.
- Besteren beharra duen pertsonaren ezaugarriak: gizona, batez beste 75 urtekoa, eguneroko bizimoduko oinarrizko jardueretarako menpekotasun moderatua-larria, batez ere bihotz-hodietako patologia baten ondorioz. Mendetasunaren balorazioa: 2. eta 3. mailak
- Helburua: "Zaintzaileen beharrizanak eta haientzat dauden gizarte-baliabideak".
 - Zaintzaileen beharrizan eta arazoak nahiz beharrizan eta arazo horiek euren eguneroko bizimoduan dauzkaten ondorioak identifikatzea.
 - Eguneko Zentroen, Familien barruko Zaintzarako Prestazio Ekonomikoaren eta Egoitzen indarguneak eta ahulguneak.

Horrez gain, plana egiten Gizarte Ekintza Saileko Zerbitzu batzuetako eta besteetako pertsona eta taldeek parte hartu dute, eta Bizkaiko Adinekoen Kontseiluak ere bai.



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

8. BIBLIOGRAFIA

Iturri bibliografikoen bilduma zorrotz bat egiteko asmorik gabe, jarraian agertuko dira Bizkaiko Adinekoen estrategia garatzeko kontuan hartu diren erreferentzia nagusiak:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren informazioa:
 - Bizkaiko Foru Aldundia (2012). *Gizarte Ekintza Sailaren 2012-2015 Plan Estrategikoa*.
 - Bizkaiko Foru Aldundia (2012). *2012. urteko txostena*.
 - Bizkaiko Foru Aldundia (2010). *Bizkaian Zahartze Aktiboa sustatzeko ekintza plana, 2010-2011*.
 - Barneko beste informazio iturri batzuk.
- Azterlanak eta txostenak:
 - Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila (2013ko azaroa). *2013-2020 Osasun Planaren Zirrriborroa*.
 - Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila (2011). *EAEko 60 urtetik gorako pertsonen bizi-baldintzei buruzko azterlana*.
 - Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila (2011). *Pertsonengan oinarritutako arreta gerontologikoa*.
 - EDE fundazioa (2013). *La participación social de las personas mayores en la CAPV. Sistema de Indicadores*.
 - Nesta (2013). *Five hours a day; systemic innovation for an ageing population*.
 - European Commission, Social Europe Guide (2012). *Demography, active ageing and pensions*.
 - European Commission (2013). *Active Ageing Index, Policy Brief*.
 - European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing. (2011). *Strategic Plan & Operational Plan*.
 - Osasunaren Mundu Erakundea (2007). *Ciudades Globales Amigables con los Mayores: Una Guía*.



BIZKAIKO **ADINEKOEN** PLAN ESTRATEGIKOA

- Arau-aipamenak:
 - Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriko Autonomi Estatutua.
 - 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremani buruzkoa.
 - Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
 - 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonal eta laguntza gehiago emateari buruzkoa.
 - 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
 - 1/2103 LEGEA, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzkoa.
- Estatistika iturriak:
 - Eurobarometer (2012). *Special Eurobarometer 378. Active Ageing.*
 - Eustat. *Bizkaiko Lurralde Historikoko Biztanleria, Biztanleria-proiekzioak, 2050eko egoera demografikoak, bizi-itxaropena jaiotzean, etab.*